

GIMNASTIKAKO BERARIAZKO ARAUAK 2020-2021 IKASTURTERAKO

1. Kirol diziplinaren lehiaketako jardueren izena.

- A. Banakako gimnastika erritmikoa
- B. Taldekako gimnastika erritmikoa.
- C. Banakako gimnastika aerobikoa.
- D. Binakako, hirunakako, taldekako gimnastika aerobikoa, aerostep eta aerodance.
- E. Emakumezko eta gizonezko banakako gimnastika artistikoa.
- F. Banakako tranpolin gimnastika.

2. Kirol diziplinaren lehiaketako jardueren joko-arauak.

Aerobic modalitatean, bikoteek, hirukoteek, taldeek, aerostep eta aerodance-k (banakakoa ez den guztia) elkarrekintzak eta irudiak kentzen dituzte.

Banaka lehiatzen den gainerako modalitateetan ez da aldaketarik egin behar.

Kirolariak euren artean ezin badira ukitu ez dugu bideragarria ikusten gimnastika erritmikoko taldekako lehiaketarik egitea.

3. Kirol federazioek antolatutako lehiaketa edo jardueretarako jarduketa-arauak.

Ekitaldien hasierako eta amaierako desfile orokor guztiak kentzen dira.

Zenbait modalitatetarako berariazko alderdiak:

Banakako gimnastika erritmikoa:

Gimnasta bakoitzak lehiaketan erabiliko duen aparatua eta horren ordezkoa eraman beharko du.

Emakumezko eta gizonezko banakako gimnastika artistikoa.

Kirolari bakoitzak bere magnesioa eramango du.

Lehiaketako txanda bakoitza amaitutakoan aparatuek desinfektatuko dira, gainazalak garbitzea kirolariarentzat arriskutsua bada izan ezik.

4. Parte hartzen duten erakundeek garatzen dituzten entrenamendu eta saioetarako jarduketara-arauek.

Ez da ezer espezifikorik aurreikusten